



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

**Gradu Amaierako Lana**

## **LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2014/2015 ikasturtea**

**ERRESPETUA, AUTONOMIA ETA BIZIKIDETZA ARAUAK HEZKUNTZAN  
LANTZEKO PROPOSAMENA**

**Egilea: Jugatx Beitia Llantada**

**Zuzendaria: Ana Arribillaga Iriarte**

**Leioan, 2015eko ekainaren 2an**

*Jugatx Beitia*

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....	5
1.1. Balioak eta jarrerak .....	5
1.2. Balioen garapena gizartean .....	7
1.3. Balioen garapena eskolan .....	9
1.3.1. Irakaslearen papera.....	10
2. Metodologia .....	11
3. Lanaren garapena .....	14
4. Emaitzak eta ondorioak .....	22
4.1. Emaitzak.....	23
4.2. Ondorioak .....	24
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	25

## ERANSKINAK

1. eranskina: Pre-test eta post-testa *“Belar eta Lore eskolan”*
2. eranskina: 1.1. jarduera *“Lagunekin jolasean!”*
3. eranskina: 1.2. jarduera *“Noren laguna izan nahi dut?”*
4. eranskina: 1.3. jarduera *“Zer da errespetatzea? Zer da ez errespetatzea?”*
5. eranskina: 2.1. jarduera *“Nire arazoak konpontzen ditut”*
6. eranskina: 2.2. jarduera *“Autonomoa izan nahi dut!”*
7. eranskina: 2.3. jarduera *“Zer da autonomoa izatea? Zer da autonomoa ez izatea?”*
8. eranskina: 3.2. jarduera *“Eskolan ere arauak behar ditugu!”*
9. eranskina: esku-hartzearen emaitzen taula

## ERRESPETUA, AUTONOMIA ETA BIZIKIDETZA ARAUAK HEZKUNTZAN LANTZEKO PROPOSAMENA

### Balioak eta jarrerak ikaste-irakaste prozesuan

Jugatx Beitia Llantada

UPV/ EHU

Balioek eta jarrerak garrantzia handia dute edozein testuingurutan. Hori dela eta, lan hau Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan errespetua, autonomia eta bizikidetzara arauak lantzeko proposamena da, ikasleen balio eta jarreretan aldaketa eta hobekuntza jakina eragiteko asmoz. Oinarri teoriko batetik sortutako esku-hartzeak, 12 jarduera ditu, pre-testa, post-testa eta balioak bizirik irauteko amaierako rol-jokoa, beste batzuen artean. Praktikan jarritako interbentziotik emaitzak eta ondorioak atera dira, proposatutakoak ikasleengan zer-nolako eragina izan duen eta ondorioz, haien ezaugarrietarako egokia izan den azalduz, besteak beste.

*Errespetua, autonomia, bizikidetzara arauak, proposamena, hezkuntza*

La sociedad actual necesita de individuos que desarrollen actitudes y valores. Este trabajo va en esa dirección, es una propuesta para desarrollar el respeto, la autonomía y las normas de convivencia en el primer curso de Educación Primaria. El objetivo principal es provocar algún cambio o mejora en los valores y las actitudes de estos alumnos y alumnas. La intervención, que se sustenta en un marco teórico, consta de 12 actividades, entre las que están el pre test, el post test y el juego de rol. Tras la puesta en práctica de dichas actividades, se analizan los resultados y las conclusiones, y se interpreta la influencia que dicha intervención ha tenido en los niños y niñas.

*Respeto, autonomía, normas de convivencia, propuesta, educación*

Values and attitudes are very important in the society. Because of that, this assignment is a proposal for working in respect, autonomy and living together rules in the first course of Primary Education. The main aim of this proposal is to cause some changes in students' values and attitudes. The procedure based in a theoretical frame, consists of 12 activities, a pre-test and post-test and a role playing. After putting it into practise, some results and conclusion have been obtained, explaining the influence of the proposal on the students, and if it is suitable for their age.

*Respect, autonomy, living together rules, proposal, education*

## Sarrera

Balioek eta jarrerak jendartean zein eskolan betidanik garrantzia handia hartu izan dute. Baloreak hainbat esparrutan eskuratu eta ikasten dira baina eskolak zer esan handia dauka hauek barneratzerako orduan. Gaur egun, sarritan entzun ohi da aspaldiko baloreak galtzen ari direla eta lan honek, egoera honen aurrean, baloreak eskolan lantzeko proposamen bat egitea du helburu.

Oinarrizko Hezkuntza arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko dekretu curricularrak (175/2007 Dekretua) kalitatezko hezkuntza defendatzen du. Ikasleek hori lor dezaten, gaur egungo gizartean bizitzeko ezagutza, abilezia eta balioak balioesten ditu, balioetan oinarritutako euskal gizartea eraikitzeke asmoz.

Hainbat autorek nabarmentzen duten legez, aipatutako azken horiek dira, hain zuzen ere, edozein eskolak kontuan hartu behar lituzkeenak ikasleentzat onuragarria den hezkuntza bideratzeko. Balioak eta jarrerak funtsezkoak dira gizakien pertsonalitatea garatzeko zein gizartean irizpide eta iritzi propioekin aritzeko. Horregatik, hezkuntzan landu beharreko arloa da, bai esparru formalean baita testuinguru informalean ere.

Lan honek balioak eta jarrerak ardatz hartuta, alor honen esparru teorikora hurbiltzeko aukera ematen du. Lehenik eta behin, kontzeptuen definizioak eta horiek gizartean zein eskolan izandako garapena aurkeztuko dira eta behin oinarriak ezagututa, egindako proposamena azalduko da, zeinak pre-test bat eta post-test bat dituen ikasleengan emandako aldaketak ikusteko.

Esku hartzea Lehen Hezkuntzako lehenengo mailara begira diseinatuta dago eta ikasleengan zenbait aldaketa eta hobekuntza eragiteko asmoarekin burutua izan da. Hezkuntza arloan, lantzeko garrantzitsuak diren balioak eta jarrera anitz daudenez, errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak aukeratu dira, ikasleen pertsonalitatea garatzeko oinarrizkoak direlakoan.

Egindako jardueren deskribapenaren ostean, lortutako emaitzak plazaratuko dira eta hortik abiatuz, esku hartze honi dagozkion ondorioak aterako dira.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Es imposible educar sin principios educativos y sin valores. Es imposible la existencia de una escuela de educación si no tiene unos principios si en esta escuela no se respetan unos valores que den sentido a la idea del hombre, del mundo, de la vida y del sentido de la historia... (Rubies, 1980:28; Espinosak aipatua, 2008).

### 1.1. Balioak eta jarrerak

Real Academia Españolaren (RAE) arabera (2015), balioa jarduera jakina garatzeko gizakiak dauzkan ezaugarri positiboak dira. Baina kontzeptu horren esanahia definizio simple batetik haratago doa. Balio hitza gizakiarekin erlazionatuta dago, haren jokabidean eragin, ideiak itxuratu zein modelatu eta pertsonaren sentimenduak baldintzatzen baititu (Llorenç, Eijo, Estany, Gómez, Guich, Mir, Ojeda, Planas eta Serrats, 1995).

Ildo horretan, hainbat dira balioaren esanahiaren inguruan ikertu duten adituak. 1994. urtean, Hall, B.P. autoreak balioak gizakiaren barne mundua adierazten duten lehenetasunak direla defendatu zuen (Medrano-k aipatua, 1999). Horren ostean eta definizio hura osatzeko helburuz, Hall&Tonna-k barne mundu hori kanpoko jokaeretan islatzen dela adierazi zuen, lengoaiarekin adierazten dela, alegia (Medrano, 1999).

Espinosak (2008:29), bere aldetik, balioa halaxe definitu zuen: “balioak edozein unetan edozer egitea edo egiteari uztea arrazoitzen dutenak dira eta pertsonen jokaerak bideratzeko balio dute”. Hortaz, definizioa zehaztuz, balioa gizakiok gure axolagabetasunetik ateratzen gaituena da, bizitzan hautaketak egiteko irizpideak ematen dituen (Juárez, 2007).

Behin balio hitza definituta, moralak direnen eta moralak ez direnen arteko eztabaida azaltzen da. Lan honetan garrantzizkoak izango direnak balio moralak dira, hots, edozein testuinguru, espazio eta denboran baliagarriak eta aldaezinak direnak (Grass, 1997).

Balioek eta jarrerak erlazio zuzena daukate eta hori aztergai nagusia izanik, funtsezkoa da haien arteko harremana ezagutzea. Jarrerak, gizakien balio pertsonalak eta sozialak islatzen dituzte eta pertsonen erabakien emaitzat hartzen dira (Rugarcía, 1999).

Hortaz, balioak dira, hain zuzen ere, jarrerren jatorria eta hauei zentzua ematen dietenak. Horregatik, ezinbestekoa da edukien gaineratik, ikasleak jarrera eta balioetan heztea, hauek baitira hezkuntzaren oinarri (Juárez, 2007). Halere, aipatzekoa da emozionala eta afektiboa dena integratzeko zailtasunak egon ohi direla, hori arautzen duen esparru teorikorik ez baitago zehaztuta (Miras, 1990).

Baloreak ezinbestekoak dira gaur egungo jendartearen aniztasuna kudeatu ahal izateko. Gizartean, kultura, pentsamendu eta iritzi ezberdinetako pertsonak bizi dira, ezaugarri horien araberrako pertsonalitateak zeharo diferentek izanik. Hala, eskolak zer esan handia izango du ikasleak etorkizuneko bizikidetzarako prestatzerakoan.

Heziketan integratu beharreko baloreak anitzak izan arren, lan honetan errespetuari, autonomiari eta bizikidetzarauei emango zaie garrantzia. Izan ere, oinarritzko balioetariko batzuk dira, ikasleek eskolan sartzen diren unetik, hots, haien garapeneren hasierako etapetatik ikasi eta bizi behar dituztelakoan.

Errespetua garrantzia handiko balioa da. Eskolan mota guztietako pertsonen arteko erlazioak ematen dira, eta horiek behar bezala bideratzeko funtsezkoa da errespetua erdigunean kokatzea, ezberdintasunak kontutan hartuz, inklusioa bermatzeko. Hezkuntza formalean zein informalean, errespetua lantzeko jarduerak egitea gomendatzen da. Modu horretan, umeei garapen sozio-emozionala garatuko dute, zeina ezinbestekoa izango den gizartean behar bezala moldatzeko (Del Prette, Domeniconi, Amaro, Benitez Laurenti eta Del Prette, 2013). Gainera, interesgarria izango da garapen sozio-emozional hori arlo kognitiboarekin erlazionatzea, hala, ikaslea ikasten duenak duen garrantziaz ohartuko da (Miras, 1990).

Landuko den bigarren balioa autonomia izango da. Piaget-ek 1948an nabarmendu zuenez, (Kamii, 1970) ikasleen autonomiaren garapena hezkuntzaren helburu nagusia izan beharko litzateke. Autonomoa izatea, pertsonak berak zentzu propioarekin bere erabakiak hartzea esan nahi du, nor bere burua gobernatzea, alegia.

Umea hazten den heinean autonomia bereganatzen doa, gero eta pertsona autonomoagoa bilakatuz. Beraz, ezinbestekoa da eskolan hori lantzeko egoerak

sortzea, esaterako, ikasleak beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea, iritzi ezberdinak elkar banatuz, haien irizpideak sor ditzaten.

Era berean, komenigarria izaten da ikasleek liskarrak konpondu edota erabakiak hartzen ikastea. Erabakiak inposatu ordeztuz, irakasleek laguntzaile gisa jokatu beharko lukete ikasleen irizpide eta iritzi kritikoei lekua utziz. Modu horretan, ikasleak horretarako abilezia lortzen joango dira pertsona autonomoagoak bilakatuz (Kamii, 1970).

Transmitituko den hirugarren eta azken balioa bizikidetzara arauak izango dira, norbanakoen arteko elkarbizitzari erreferentzia egiten diotenak. Zentzu horretan, eskolaren zeregin nagusietariko bat ikasleak gizartean behar bezala moldatzeko eta pertsonekin elkarbizitza zuzena izateko prestatzea da. Hori arautzeko eta elkarbizitza baketsua bermatzeko komenigarria izango da zenbait bizikidetzara arau adostea (Caballero, 2010).

Hala ere, ezin da ahaztu familietan, hedabideetan eta testuinguru sozialek ere funtsezko papera betetzen dutela balioak barneratzerako orduan (Medrano, 1999). Izan ere, hezkuntza ez formala eta informala ingurune horiek lagungarriak izan daitezke eskolak balioen irakaskuntzarako zehazten dituen helburuak lortzeko (Martínez, Esteban eta Buxarrais, 2011). Horregatik, jarraian, balioek gizartean eta hezkuntzan izan duten garapena azalduko da, bertako nondik norako garrantzitsuenak azpimarratuz.

## **1.2. Balioen garapena gizartean**

Balioek gizartearekin erlazio zuzena dutelakoan, pertsonak jendartean bizitzeko balio sistema baten beharra daukate. Gaur egungo gizartea etengabeko aldaketan dago eta beraz, balioen sistema horrek ere bere izaera aldatu beharko luke gizarteari egokitzeko. Testuinguru honetan, balioen ikaskuntza ahalbidetzeko funtsezkoa da hiru baldintza hauek betetzea: balioen adostasun eta bateratzea, ohituren iraunkortasuna eta gainerako pertsonen eredu egokia (Parra, 2003). Badira arlo horren inguruan ikertu duten zenbait autore, teoria ezberdinak sortuz, hala nola, teoria subjektiboa eta objektiboa.

Meinongek eta Ehrenfelsek (Álvarez-ek aipatua, 2001) teoria subjektiboan baieztatu zuten, gizakia da balioa sortu eta objektuei balioa ematen diona. Hortaz, balioak gizartearen onarpenaren menpe daude; pertsonak haien sentimendu eta emozioen arabera balioak hautatzen dituzte, modu horretan, balioen mailaketa eratuz.

Bestalde, Frondizik (1977), Hartmanek (1957) eta Ortega y Gassetek (1973), beste batzuen artean, teoria objektiboa defendatu zuten (Álvarez-ek aipatua, 2001). Teoria honek dioen legez, gizakiak jada existitzen den balioa aurkitzen du; balioa autonomia eta gizakiengandik independentea da eta pertsonak bereganatu egiten dituzte.

Gaur egun balioesten diren balioak zeintzuk diren jakiteko, Elzo, Megías, Navarro, Rodríguez eta Román autoreek (2000) horren inguruan egindako ikerketa aintzat hartu daiteke. Bertan, egoeraren azterketa egiten da eta garrantzirik handiena duten balioak identifikatzen dira.

Ikerketan nabarmena da gizarteko kide gehienek familiarekin harremana duten balioak lehenesten dituztela, hura baita pertsonaren oinarrizko sentimenduak agerrarazteko esparrurik egokiena. Jarraian, tolerantzia eta elkartasuna ageri dira eta hirugarren maila baten, lehiakortasuna, materialismoa... daude. Hurrengoak, segurtasun pertsonalarekin erlazionatuta daudenak dira, askatasuna eta laguntasuna besteak beste. Azken mailan, balio erlijioso eta politikoak aipatzen dira.

Aurreko guztia kontutan hartuta eta autorearekin bat natorrelakoan, familiak erantzukizun handia du balioen transmisioan. Izan ere, bertan gizartean parte hartzeko tradizionalki garrantzitsuenak izan diren balioak transmititzen dira, hala nola, tolerantzia, elkartasuna, laguntasuna, elkarbizitza, berdintasuna, konfiantza eta errespetua.

Hortaz, familia funtsezko elementua dela gizakien bizitzan, bertan harreman sozial, afektibo eta ekonomikoak eratzen baitira. Modu horretan, familian hasiera ematen zaio pertsona bakoitzaren gizarteratze prozesuari, balioetan oinarritutako hezkuntza gertatzen den lehenengo eremua izanik (Álvarez, 2001).



### 1.3. Balioen garapena eskolan

Balioak transmititzerako orduan familiaren presentzia nabarmena den moduan, hezkuntzak ere zer esan handia izango du prozesu horretan. Parrak (2003) esaten duen bezala, hezkuntza gizarteak eskatzen dituen ezagutzen, abilezien eta balioen transmisioa gertatzeko egiten den jarduera kulturala da. Honenbestez, edukiak eta trebetasunak lantzearekin batera, ezinbestekoa da hezkuntza esparruan balioen protagonismoa berreskuratzea.

Ikasleek denbora asko igarotzen dute eskolan haien bizitzetako lehenengo urteetan eta testuinguru horretan hainbat balio estimatzeko aukera daukate. Esaterako, ikasleek txikitatik ikasten dute besteak errespetatzen eta norbera errespetatua sentitzen. Ildo horretan, balioetan oinarritutako hezkuntza nortasun autonomoa eta pertsonala garatzeko era egokia da (Martínez et al, 2011).

María Nieves Pereirak (Juárez-ek aipatua, 2007), balioen hezkuntza garatzeko proiektu pedagogiko baten beharra ikusi zuen, hurrengo balioei garrantzia emanez: pertsonaren askatasuna, imajinazioa, pertsonen arteko erlazioa, komunikazioa eta bizitzarenganako errespetua, besteak beste. Hitz gutxitan, formazio independentea aitortzen duen eskola aldarrikatzen du, hots, eskolaz kanpoko bizitzan eskuratzen den esperientzia aintzat hartzen duena.

Balioetan oinarritutako hezkuntza antolatzeko zenbait metodo sortu izan dira eta Parrak (2003) ikuspegi tradizionala eta berritzailearen arabera sailkatu zituen. Lehenengo ikuspuntuan balio objektiboak existitzen dira, pertsona orok onartzen dituenak. Horiek irakaskuntzaren bitartez transmititu daitezke eta modu horretan, ikaslearen jardueraren eta ohitze prozesuaren bitartez bereganatu daitezke.

Ikuspuntu berritzailearen iritziz, ez da balio objektiborik, unibertsalik ez absoluturik existitzen; balioak bakoitzaren galdera pertsonalak dira. Ikuspegi honen bitarteko hezkuntza aurrera eramateko, metodo ezberdinak diseinatu dira eta jarraian, horietariko lauren ezaugarri garrantzitsuenak adieraziko dira (Parra, 2003).

Lehenik, balioen azalpenaren metodoa aurki daiteke. Honen helburu nagusia, (Raths eta lankideak, 1967; Parra-k aipatua, 2003), ikasleei haien balioak identifikatzen, haiei

garrantzia ematen, besteekin elkar banatzen eta balio horiei jarraituz jarrera egokia izaten laguntzea da.

Bigarrena, garapen moralaren eredua da eta Kohlberg (1966), Piaget-en (1932) umeen garapen moralaren teoria kognitibo ebolutiboan oinarritu zen metodo hau sortzeko.

Kohlberg-en teoriaren arabera, gizakiek balio jakinak izango dituzte dauden espazioan eta denboran daudela, kulturari erreparatu barik (Parra, 2003).

Hirugarrenik, ikaskuntza aktiboaren eredua azaltzen da, eta honen aburuz, balioak pertsonen gizartearekin harremanetan jartzen direnean sortzen dira, gizartea balioengan eragina izanik (Parra, 2003).

Ikuspegi modernoaren metodoei amaiera emateko, balioen analisia aipatzen da. Bere helburu nagusia ikasleengan pentsamendu logikoa garatzea da, horren bitartez, pertsonen balioen inguruko galdera nahiz zalantzei aurre egin ahal izateko (Fraenkel, 1973; Hunt eta Metcalf, 1998; Parra-k aipatua, 2003).

Balioen hezkuntzarako erabiltzen den metodoa erabiltzen dela, ugariak dira balioetan oinarritutako hezkuntzak egiten dituen ekarpenak. Arlo horretan, Juárezek (2007) nabarmentzen duenez, balioak ardura handiko ikaskuntza dira eta hezkuntza erakundearen erantzukizuna ikasleek sinesten dituzten balioak agerian uztea da, haientzat egokiak diren jarrerak gara ditzaten.

### **1.3.1. Irakaslearen papera**

Familiek eta eskolak helburu komuna daukate, umeak era egokian heztea, alegia. Horretarako, haien arteko harremanak zuzena izan behar du. Eskola esparruan, balioen eta jarreraren irakaste-irakaste prozesua behar bezala garatzeko, irakasleak funtsezko zeregina du, bi arazo bere gain hartu behar dituela. Alde batetik, hezkuntzaren eduki izango diren balio eta jarrerak aukeratzea eta bestetik, horiek transmititzeko estrategiak diseinatzea (Parra, 2003).

Irakasleek, honenbestez, jarraibide eta iritzi jakinak behar dituzte eskolako gainerako maisu-maistrekin batera balio eta jarreretan oinarritutako hezkuntzaren nondik norakoak zehazteko (Martinez et al, 2011). Izan ere, edozein eskolatan lan egiten

duten pertsonen artean, zentzu honetan adostasun osoa egon behar da. Horrez gain, irakasleek balio eta jarrera horiek ikasleei transmititu aurretik ikasi, bereganatu eta bizi behar dituzte, hori horrela izan ezean, ezinezkoa izango baita ezein balio irakastea eta transmititzea.

Aurrean jakinarazitakoa funtsezkoa da eskolan umearen hezkuntzaz arduratzen den edozein pertsonarentzat. Irakaslea eredu nagusia da ikaslearentzat eta honen figura erabakigarria izango da ikasle bakoitzak balioak ikasi eta barneratzeko. Ikasleek nagusien jarrerak imitatzeko joera daukatenez, irakasleak egunerokotasunean agerian utzi behar ditu transmititzen saiatzen ari diren baloreak. Gauzak horrela, hezitzailea ikasleei haien balio propioak bilatzen eta zentzuzko jarrera hartzen lagundu behar die, lehen aipatu bezala, horrela lortuko baitute ikasleek bizitzaren zentzua aurkitzen (Juárez, 2007).

## **2. Metodologia**

Balio eta jarrerei eskolan protagonismoa emateko nahian, lan honetan hezkuntza esku-hartze bat proposatu eta gauzatuko da. Interbentzioaren helburu nagusia ikasleen jarreretan nolabaiteko aldaketa edo hobekuntza eragitea da, aurretiaz azaldu den bezala, jarrera horiek pertsona bakoitzak barnean dituen balioen isla direla aintzat hartuz.

Pertsonak balio eta jarrera ugari ikasten eta garatzen dute bizitzan zehar. Esku-hartze hau horietariko hirutan zentratuko da; errespetuan, autonomian eta bizikidetzaren arauetan. Era berean, zeharka, gizarte eta herritartasunerako gaitasuna eta norbere autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna landu dira.

Batetik, gizarte eta herritartasunerako gaitasuna funtsezkoa da ikasleak bizitzan hartu behar dituen ardurak eta erabakiak aukeratzeko baita egoera jakinetan nola jokatu beharko duen jakiteko ere. Hots, honen bitartez, pertsonak elkarbizitzan bizitzen ikasiko dute.

Bestetik, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak ikasleen testuinguruan, egunerokotasunean gertatzen diren arazoei aurre egiteko ahalmena izatea ahalbidetzen du. Horretarako, ikasleek zenbait balio eta jarrera bereganatu beharko dituzte, hala, bakoitzak bere pertsonalitatea garatuz.

Horretarako, interbentzioaren hasieran eta amaieran pre-testa eta post-testa egingo dira, hurrenez hurren eta tartean, aipatutako balioak lantzeko jarduerak ezberdinak burutuko dira. Balio bakoitzeko hiru jarduerak egingo dira, hiru jarduerako hiru bloke osatuz. Behin hori bukatuta eta esku-hartzeari amaiera emateko, rol-joko bat egingo da.



Proposamen hau 6-7 urte bitarteko 27 umez osaturiko ikasle talde batean jarri da praktikan. Ikasleen adina eta kopurua kontuan hartuz, jarduerak ikastaldearen ezaugarrietara egokitutakoak dira.

Lehenik eta behin, ikasleen balioen eta jarreraren inguruko aurrezagutzak jakiteko asmoz, pre-test bat prestatu da. Jarduera, ikasleei irakurritako ipuin batean oinarrituta dago zeinak esku-hartzearekin landuko diren edukiak (errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak) era orokorrean jorratzen dituen. Ipuina irakurri ahala, itxiak diren hiru galdera egin zaizkie umei eta haien bitartez aurrezagutzak jakinarazi dituzte.

Hurrengo urratsa, proposamenaren oinarri diren hiru baloreak eduki bezala lantzea izan da. Goiko eskeman ezagutzera eman den bezala, landu den balio bakoitza hiru jardueren bitartez garatu da, guztira bederatzi jarduerak osatuz.

Hiru blokeek egitura bera jarraitu dute. Bloke bakoitzeko lehenengo jardueretan (1.1., 2.1. eta 3.1.), marrazkien eta jolasen bitartez, ikasleei egoera batzuk aurkeztu zaizkie eta egoera horietan zer egingo luketen galdetu zaie. Jarduerak hauek gerturatze funtzioa beteko dute.

Bigarren jardueretan (1.2., 2.2. eta 3.2.), umeei balioak haien bizitzako zenbait egoerekin erlazionatzea lortu nahi da. Horretarako, beste zenbait egoera azaldu zaizkie, ahoz edota marrazkien bitartez. Lantzen ari den balioa presente izanik, egoera horiei aurre egiteko era ezberdinak behatu dira.

Hirugarren eta azken jardueren asmoa (1.3., 2.3. eta 3.3.), aurrekoetan ikasitakoa borobiltzea da. Horretarako, balio bakoitzeko mural bat sortu da balio horiek praktikara eramateko eta bizi ahal izateko irizpideekin, ikasgelan egin behar dena beti presente egon dadin.

Aurreko jarduerak bukatu ostean, post-testa burutu da. Horrek pre-testaren berdindina izan behar du. Izan ere, horrela, eta bakarrik horrela, antzeman daiteke esku-hartzeak hasi zenetik bukatu den arte nolabaiteko aldaketa edo hobekuntza eragin duen.

Proposamenari amaiera emateko, garrantzitsua izan da ikasleek ikasitako balioak praktikatzeko jarraitzea eta besteekin harremanetan jartzean hartzen duten jarrerarekin adieraztea. Alabaina, balioak osotasunean barneratzeak, horiek praktikatu eta egoera ugarietan bizi behar dira. Horretarako, ikasgelan rol-joko bat planteatu da, zeinetan batzuk errespetua egoteaz, beste batzuk ikasle guztiak autonomoa izateaz eta gainerakoak bizikidetzaren arauak erabiltzeaz arduratu diren. Modu horretan, ikasgelan balio horiekin erlazionatutako arazo bat egon denean, balioaren arabera, talde batek edo beste batek hartu du arazoa kudeatzearen ardura. Gainera, astean behin rola aldatu dira, ikasle orok balio guztiak era berean lan ditzan.

Pre-testa, esku-hartzea bera, post-testa eta rol-jokoa kontuan hartuz, guztira 12 jarduerak dira. Saio kopuruari erreparatuz, pre-testa eta post-testa saio bakar eta independenteetan egitea gomendatzen da eta sekuentzia didaktikoko gainerako jarduerak saioetan elkartu daitezke. Hala ere, ez da komenigarria saio luzeegiak egitea ikasleek arreta mantendu dezaten.

Lanaren garapenean sakonki azalduta agertuko den arren, aipatzekoa da jardueren erantzun ugari marrazkien bitartez adierazi dituztela, daukaten adina dela eta, idazteko trebetasuna urria baita.

### 3. Lanaren garapena

Lanean zehar, balioen eta jarrerren garapenari heltzen zaio, bai gizarte mailan baita eskola esparruan ere. Modu horretan, jarraian gaur egungo gizartearen ezaugarriak kontuan hartzen dituen proposamena garatuko da, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan aplikagarria izango dena.

PRE-TEST: *Belar eta Lore eskolan.*

- Helburua: errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauen garrantziaz ohartzea.
- Edukiak: errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak.
- Gaitasunak: gizarte eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Jardueraren deskribapena: irakasleak ipuina irakurriko die ikasleei eta ipuinean galderak ageri direnean denbora utziko du txikiak haien fitxetan erantzun dezaten. Guztira, hiru galdera ageriko dira, hortaz, irakurketa hiru aldiz geldituko da. Bukatzean, irakasleak fitxa guztiak jasoko ditu. (1. eranskina).
- Praktikan jartzea: ikasleek arazo barik ulertu dute jardueraren dinamika. Pre-testa burutzean, ia ikasle gehienak Lorerekin (errespetatzen, autonomia izaten eta bizikidetzaren arauak onartzen dituenarekin) identifikatu dira.

#### 1. ERRESPETUA LANTZEKO JARDUERAK

<u>Helburuak</u>	Errespetua bizitzako egoera ezberdinetan erabiltzea.
	Norberak bere buruarenganako eta besteenganako errespetuaren garrantziaz ohartzea.
	Errespetua zenbait zereginekin erlazionatzea, praktikan jartzeko.
<u>Edukiak</u>	Errespetua
	Inklusioa
<u>Gaitasunak</u>	Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna.
	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

### 1. 1. JARDUERA: *Lagunekin jolasean!*

- Jardueraren deskribapena: ikasleei hurrengo egoera irakurriko die irakasleak: *Aurreko egunean ezagutu genuen bezala, Belar eta Loreri ikaragarri gustatzen zaie lagunekin jolastea. Baina Belarrek ez ditu bere ikasleen iritziak kontuan hartzen eta berak esaten duenera jolastu behar da. Lorek, berriz, bere klaseko pertsonen iritziak kontuan hartzen ditu eta zertara jolastu nahi duten galdetzen die beti. Jarraian, ikasleei hiru egoera ezberdin adierazten duten irudiak erakutsi eta hurrengo galderak egingo zaizkie: *hurrengo egoeretan, zein jarrera hartuko zenuke zuk? Zergatik? Zer iruditzen zaizu garrantzitsua? Amaieran, hiru egoerak batera erakutsiko zaizkie eta irakasleak hurrengo galderak egingo dizkie ikasleei: *zein berdintasun eta ezberdintasun ikusten dituzue irudien artean? Gurpilduna betirako bada? Berdin arituko zinateke biekin? (2. eranskina).***
- Praktikan jartzea: ikasleei erakutsi zaien lehenengo egoeran, guztiek utziko liokete pertsonaiari jolasten, hura haien laguna delako. Bigarren egoeran eztabaida sortu da, iritzi ezberdinak agertu baitira. Taldean hitz egin ostean, baietza azaldu dutenek gurpildun aulkian betirako dagoenarekin jolastuko luketela defendatu dute eta gainerako ikaskideak konbentzitu dituzte. Hirugarren egoeran, gurpildun aulkian denbora baterako dagoen pertsonaiari ez lioketela lagunduko azaldu dute. Hortaz, egoera guztiak aldi berean behatuta, bigarren egoeran laguntzeko prest egon direnak, pertsonarekiko sentimenduren bat daukatela ondoriozta daiteke, gurpildun aulkian betirako baitago. Bestalde, oso gutxi izan dira hirugarren egoerara egokitzeko prest egon direnak.

### 1.2. JARDUERA: *Noren laguna izan nahi dut?*

- Jardueraren deskribapena: jarduera hau aurrera eramateko, irakasleak Belar eta Lore nolakoak diren gogoraraziko die ikasleei, eta hori kontuan hartuta, noren lagunak izatea gustatuko litzaiekeen galdetuko die: *jakinda Belarri ezberdin pentsatzen duen jendearekin jolastea ez zaiola gustatzen eta Loreri bai, noren lagunak izatea gustatuko litzaizueke?* Ikasle bakoitzaren erantzuna, orrialde batean jasoko da, non ikasle bakoitzak lagun gisa izan nahi duen pertsonaia itsatsi eta norberaren burua irudikatu beharko duen. Zeregin hori bukatzen

dutenean, ikasleak era indibidualean irakasleari haien erantzuna erakutsi eta azaldu beharko diote, hautaketaren iritziak emanez. (3. eranskina).

- Praktikan jartzea: jarduera honetan, ikasle gehienak Lore aukeratu dute lagungisa, gauzak ondo egiten dituela argumentatuz. Halere, 27 umetatik, bi ikaslek Lore eta Belarren lagunak izatea gustatuko litzaiekeela erantzun dute guztien laguna izan behar dugulako eta Belarri jarrera ona izaten erakutsi behar diogula esanez.

### 1.3. JARDUERA: Zer da errespetatzea? Zer da ez errespetatzea?

- Jardueraren deskribapena: ikasleei bost esaldi banatuko zaizkie. Horietariko batzuek errespetua adierazten dute, eta besteek kontrakoa. Hortaz, horren arabera sailkatu behar izango dituzte errespetatzea eta ez errespetatzea zer den ikasiz. Lehenengo, hori era indibidualean egingo dute eta behin guztiek bukatzen dutenean, erantzunak komunean jarriko dituzte eta klaserako mural bat sortuko dute, non errespetua adierazten duten esaldiak ageriko diren. (4. eranskina).
- Ebaluazioa: errespetuaren inguruko jardueren blokea bukatzean, ikasleek kontzeptua barneratu duten jakiteko ebaluazioa gauzatuko da. Horretarako, ikasleak talde handian egonik, irakasleak hurrengo galderak egingo dizkie eta haien erantzunak kontuan hartuko ditu errespetuaren inguruko teoria ulertu duten jakiteko: *belar eta lore nolakoak diren jakinda, nork errespetatuko ditu laguna, eta nork ez? Zer abantaila eta desabantaila ditu besteak errespetatzeak?* Modu horretan, errespetuaren inguruko jardueri amaiera emango zaie.
- Praktikan jartzea: jarduera hau arazo barik burutu dute errespetuaren inguruan era indibidualean hausnartuz. Ikasle guztiek bikain dakite jarrera egokia zein den eta pertsonaiak leku egokian kokatu dituzte, salbuespen barik. Taldeko murala sortu denean ere, ez dute zalantzarik izan. Jarduera multzo honen ebaluazioa burutzean ikasleek haien irizpideak erabiliz erantzun dituzte talde handian planteaturiko galderak eta besteak errespetatzeak abantaila ugari dituela adierazi dute.



## 2. AUTONOMIA LANTZEKO JARDUERAK

<u>Helburuak</u>	Norberak eguneroko bizitzako autonomiaz jabetzea.
	Autonomia adierazten duten ekintzez jabetzea.
	Autonomia zenbait zereginekin erlazionatzea praktikan jartzeko.
<u>Edukia</u>	Autonomia
<u>Gaitasunak</u>	Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna.
	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

### 2.1. JARDUERA: *Nire arazoak konpontzen ditut.*

- Jardueraren deskribapena: irakasleak hurrengo egoera irakurriko die ikasleei: *Belar lehoiak klaseko lanak bukatu ditu eta lagunekin jolasten ari da ikasgelan. Bere lagun batekin arazo bat izan du, ez dira ados jarri eta eztabaidatzen hasi dira. Eztabaidatu ostean, Belarri ez zaio pertsona horrekin hitz egitea gustatzen, beraz, irakaslearengana doa eta gertatu zaiona kontatzen dio. Lehoiak, arazoa irakasleak konpontzea nahi du. Loreri berdin berdina gertatzen zaionean, lagunekin hitz egiten du, lasaitasunez, eta arazoak elkarrekin konpontzen dituzte.* Behin hori entzunda, bakoitzari norberak Belar edo Lore bezala jokatu lukeen galdetuko zaio, eta erantzun baino lehen, erantzuna ondo pentsatzeko eta hausnartzeko eskatuko zaie. (5. eranskina).
- Praktikan jartzea: jarduera honen erantzunak talde handian jaso diren arren, bakoitzak bere iritzi eta esperientzia kontatzeko denbora izan du. Gehienek irakurritako egoeraren aurrean Lore bezalako jarrera hartzen dutela jakinarazi dute eta besteek batzuetan Belar bezala egiten dutela aitortu dute. Ume batek, zehazki, lehenengo Lore bezalako jarrera hartzen duela aipatu du, eta gainerako erantzunak entzun eta egoerari hobeto erreparatu ostean Belar bezala egiten duela aitortu du.

Horren inguruan talde handian hitz egitean, “egin behar denaren” eta “egin beharko genukeenaren” artean ezberdintasuna dagoelako oharpena jaso dute ikasleek. Izan ere, guztiek dakite jarrera egokia Lorerekin dela baina askotan ez dute horrela jarduten.

## 2.2. JARDUERA: *Autonomoa izan nahi dut!*

- Jardueraren deskribapena: ikasleei autonomiaren inguruko bi egoera erakutsiko zaizkie, egoera bakoitzean bi irudi azalduz. Irudi batek autonomia adieraziko du eta besteak, ordea, ez. Horrela, hurrengo galderak egingo zaizkie: *zer agertzen da irudietan? Zer ezberdintasun ikusten duzu honako irudien artean? Zure bizitzan zein egoera gertatzen da gehiago?* Ondoren, bakoitzari fitxa bana emango zaio, non egoera bakoitzean nola jokatzeko markatu eta irudi egokia itsatsi beharko duten. Hori bukatzean, ikasle bakoitzak bere erantzuna erakutsi eta azalduko dio irakasleari horren justifikazioa emanez. (6. eranskina).
- Praktikan jartzea: ariketa honetan ikasleei erakutsi zaizkien egoeren arteko desberdintasunak arazo barik bereizi dituzte eta haien eguneroko bizitzan autonomiari erreparatuz nolako jarrera hartzen duten azaldu dute, zailtasunik erakutsi gabe.

## 2.3. JARDUERA: *Zer da autonomoa izatea? Zer da autonomoa ez izatea?*

- Jardueraren deskribapena: ikasleei bost esaldi banatuko zaizkie, batzuk autonomoak izatea adierazten dute, eta besteek kontrakoak. Hortaz, horren arabera sailkatu behar izango dituzte autonomoa izatea eta ez izatea zer den ikasiz. Lehenengo, hori era indibidualean egingo dute eta behin guztiek bukatzen dutenean, erantzunak komunean jarriko dituzte eta klaserako mural bat sortuko dute, non autonomia adierazten duten esaldiak ageriko diren. (7. eranskina).
- Ebaluazioa: jarduera multzo honen ebaluazioa talde handian gauzatuko da. Horretarako, irakasleak galdera hauek egingo dizkie ikasleei eta haien erantzunak kontuan hartuko ditu autonomiaren inguruko teoria ulertu duten jakiteko: *Belar eta Lore nolakoak diren jakinda, nor izango da autonomoa, eta nor ez? Zer abantaila eta desabantaila ditu autonomoa izateak?*
- Praktikan jartzea: ikasleek ez dute zailtasunik izan jarduera hau burutzeko. Banaka zein taldeak egin behar izan duten ekintzetan era egokian aritu dira eta salbuespen barik erantzun guztiak zuzenak izan dira. Ebaluazioa gauzatzean, bakoitzak bere iritzia eman du guztiek autonomiaren alde eginez. Halere, adierazgarria izan da ikasle batek eman duen erantzuna: “autonomoa izatea ona

da, independentea izatea delako, nagusiak bezala”, ikaslek txikienek nagusiak izan nahi baitute beti.

### 3. BIZIKIDETZA ARAUAK LANTZEKO JARDUERAK

<u>Helburuak</u>	Elkarrekin bizitzeko zenbait arau beharrezkoak direlako oharpena jasotzea.
	Eskolaren funtzionamendu egokirako eta elkarbizitzarako baliagarriak diren arauak identifikatzea.
	Arauak sortzen eta beretzen ikastea.
<u>Edukia</u>	Bizikidetza arauak
<u>Gaitasunak</u>	Gizarte eta herritartasunerako gaitasuna.
	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

#### 3.1. JARDUERA: *Arauak behar ditugu.*

- Jardueraren deskribapena: jarduera hau aurrera eramateko, ikasleek jolas batean parte hartu beharko dute. Horretarako, espazio zabal batean banatuko dira eta kotxeak izango balira bezala jardun beharko dute. Horrela, kotxeen rola betez, ikasgelatik mugituko dira, hasierako momentuan norabide eta noranzkorik zehaztu gabe. Ikasleak mugitzen doazen heinean, behin baino gehiagotan oztopatu eta beharbada jauziko dira. Hori gertatzen denean, jolasa geldituko da eta zergatik oztopatu diren galdetuko zaie. Une horretan, ikasleek erantzuna honen antzekoa izatea espero da: “biderik finkatu ez dugulako”. Jarraian, jolasean ari diren bitartean gidatzeko beharrezkoak diren arauak taldeka zehaztuko dira eta jolasarekin jarraituko da. Hau behar den adina aldiz errepikatuko da, jolasa era egokian bideratu arte. Irakasleak jolasari amaiera ematea erabakitzen duenean, hurrengo galderak egingo dizkie ikasleei, talde handian erantzun beharko dituztenak: *zer gertatu da hasierako jolasean? Eta egin ditugun aldaketekin zer gertatu da? Gure jolasa bideratzeko, zer izan da beharrezkoa?*
- Praktikan jartzea: Lehenik eta behin, araurik gabe aritu gara eta espero zen bezala, arazoak egon dira ondo gidatzeko. Egoera horren aurrean, jolasa hiru

aldiz pausatu behar izan da. Lehenengoan ondo gidatzeko beharrezkoa zer den galdetu diedanean “bideak egitea” erantzun dute ikasleek eta hala aritu garen bora batez. Hori ez da nahikoa izan jolasa ondo bideratzeko eta bigarren etenaldian, “semaforo bat ipintzea” proposatu dute ikasleek. Oraindik ere, jolasa ez da ondo bideratuta egon, eta hirugarren etenaldian, ikasle batzuek polizia baten beharra ikusi dute eta une horretan eztabaida sortu da ikastaldean, besteek horrekin ados ez baitzeuden. Haien ados jartzen ez zirela ikusirik, hurrengo galdera egin diet: *aurretik bi arau izanda, pertsona bat behar dugu guk zer egin behar dugun jakiteko?* Ikasleak pentsatu eta guztiek ezetz erantzun dute, aurreko bi arauekin nahikoa zela argumentatuz. Beraz, azken aldiz jolasa egin eta ondo irten da.

Jolasteari utzi diogunean, jolasa ondo irteteko zer izan den beharrezkoa galdetu diet, eta zalantzarik gabe, arauak ipintzea garrantzitsua izan dela erantzun dute ikasleek. Hortaz, gidatzeko arauak behar ditugun bezala, elkarrekin bizitzeko ere zenbait arau behar ditugula jakinarazi diet.

### 3.2. JARDUERA: *Eskolan ere arauak behar ditugu!*

- Jardueraren deskribapena: ikasleei arau batzuk emango zaizkie eta haientzat egokiak direnak aukeratu beharko dituzte, era indibidualean lan eginez. Jarraian, lau egoera erakutsiko zaizkie eta horretariko bakoitzean parte hartzen duten pertsonaiek zein arau erabili behar dituzten identifikatu beharko dute, aurrean aukeratutakoen artean. Horren ostean, talde handian ikasleek irakaslearen laguntzarekin erantzunak komunean jarriko dituzte, bakoitzaren iritzirako eta hausnarketarako lekua utziz. (8. *eranskina*).
- Praktikan jartzea: ikasleei jarduera honetan egin behar zutena azaldu diedanean nik ezer eskatu barik haien bizitzan gertatzen diren adibideak jarri dituzte, bizikidetzaren arauak haien egunerokotasunean erabiltzen dituztela erakutsiz. Modu horretan, ariketa honetan burutu beharrezkoa eragozpenik gabe garatu dute era indibidualean zein taldean aritu garen.

### 3.3. JARDUERA: 1.A ikasgelako arauak!

- Jardueraren deskribapena: jarduera honetan, ikasleek haien ikasgelarako arau batzuk sortu beharko dituzte. Horretarako, aurreko jardueran hautatutako araez baliatu daitezke edo beste batzuk adostu. Arau horiek, kartulina batean idatzi eta ikasgelako horman ikusgarri egongo dira.
- Ebaluazioa: jarduera multzo honen ebaluaziorako, azken jarduera ondo egin duten kontuan hartuko da. Izan ere, ikasleek aurrekoetan ikasitako guztia erabili behar izango dute haien ikasgelarako arauak zehazteko. Hortaz, honek eskatzen duena egiteko ikasleak nola moldatzen diren kontuan hartuko du irakasleak.
- Praktikan jartzea: ikasleek ez dute zailtasunik erakutsi ariketa hau gauzatzeko eta argi izan dute une oro muralean jarri beharreko arauak zeintzuk izan diren.

### POST-TEST: *Belar eta Lore eskolan*

- Helburua: errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauen garrantziaz ohartzea.
- Edukia: errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak.
- Gaitasunak: gizarte eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Jardueraren deskribapena: irakasleak ipuina irakurriko die ikasleei eta ipuinean galderak ageri direnean denbora utziko du txikiek haien fitxetan erantzun dezaten. Guztira, hiru galdera ageriko dira, hortaz, irakurketa hiru aldiz geldituko da. Bukatzean, irakasleak fitxa guztiak jasoko ditu. (*1. eranskina*).
- Ebaluazioa: jarduera honetan lortu diren emaitzak pre-testean lortu ziren emaitzekin alderatu beharko dira eta egon diren aldaketak behatu. Horrela, aldaketen izaeraren araberrako ebaluazioa egin beharko du irakasleak.
- Praktikan jartzea: ikasleak ipuinarekin gogoratzen zirenez, askok erantzunak ipuina irakurtzen hasi baino lehen idatzi dituzte, eta guztiak Lore pertsonaiarekin identifikatu dira.

## ROL-JOKOA

- Helburua: aurretik ikasitako guztia praktikan mantentzea.
- Edukiak: errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak.
- Gaitasunak: gizarte eta herritartasunerako gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- Jardueraren deskribapena: sekuentzia didaktikoan zehar ikasitako hiru balioak eskolan praktikatu ditzaten eta horretaz kontziente izan daitezten, rol-jokoa burutuko da. Ikasitako balioak hiru direnez (errespetua, autonomia eta bizikidetzaren arauak), ikasleak hiru taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzak balio baten ardura izango du. Modu horretan, eskolan balioa betetzen ez denean haiek izango dira arazoa ebazten lagundu behar dutenak. Horrez gain, rolak astean behin aldatuko dira, ikasle guztiak balio guztien arduradun izateko.
- Ebaluazioa: jarduera honetan ebaluazio jarraitua egongo da. Ikasleek etengabe egon beharko dute balioak betetzen diren zain eta horrela, irakasleak zein gainerako ikasleek talde lana ondo egiten ari den ebaluatuko dute.
- Praktikan jartzea: jarduera honetan parte hartzeko ideiak ikasleak motibatu dituen arren, aipatu beharrezkoa da ez dutela egokitutako ardura etengabe presente izan. Hau da, sekuentzia didaktikoan landu diren kontzeptuei buruzko arazo bat planteatu denean, ikasleek irakaslearengana jo izan dute beti, lehen egiten zuten bezala. Halakoak gertatu direnean, arduradunak haien zirela gogorarazi diet, baina adinaren edo erantzukizun falta izan dela eta, ahuleziak egon dira rol-jokoa.

## **4. Emaitzak eta ondorioak**


Lan honen helburu nagusia ikasleengan errespetuari, autonomiari eta bizikidetzaren arauari dagokienezko hobekuntza edo aldaketa jakina probokatzeko izan da. Hori lortu den eta noraino eman den jakiteko, beharrezkoa da proposatu eta praktikara eraman den sekuentzia didaktikoaren emaitzak eta ondorioak aztertzea.

### 4.1. Emaitzak


Planteaturiko esku-hartzeak ikasleengan izan duen eraginaren berri izateko, gauzaturiko pre-test eta post-testen arteko aldeari erreparatuko zaio. Izan ere, ikasleek haien garapenean aldaketaren bat jasotzekotan, interbentzioa hasi baino lehenagoko unetik eta proposamena bukatu osteko momentura arte izan da, pre-test eta post-testa egin diren uneetan, alegia. Ildo horretan, test horien emaitzak bi grafikoetan adierazi dira, haien arteko ezberdintasunak agerian utziz. (9. eranskina).

#### Pre-testaren eta post-testaren emaitzak

<u>GALDERAK</u>	PRE-TEST		POST-TEST	
	E. ZUZENAK	E. OKERRAK	E. ZUZENAK	E. OKERRAK
1. galdera	26	1	27	0
2. galdera	25	2	27	0
3. galdera	25	2	27	0



1. grafikoa: pre-testaren emaitzak



2. grafikoa: post-testaren emaitzak

Grafikoetan antzematen den legez, pre-testean txarto erantzun zuten ikasle guztiek post-testean ondo erantzun dute. Horrenbestez, erantzunen aldaketaren portzentajea %100ekoa da.

Hala ere, ariketak egiterakoan, aipatzekoak diren zenbait zailtasun agertu dira. Proposaturiko jarduerari dagokienez, talde handian eztabaidak sortu direnean 6-7 urteko ikasleek ideiak irizpide kritikoz azaldu dituzte, askotan haien adinagatik eta garapenagatik espero ez ziren zenbait erantzun adieraziz. Horrek ariketak ulertu eta haien inguruan hausnartu dutelako seinalea da, era indibidualean zein taldean lan eginez.

Bestalde, landutako balio eta jarrerak praktikatzen jarraitzeko proposatu den rol-jokoan zailtasunak egon dira. Ikasleei jokoak planteatu zitzaizkion gogo handiz hartu zituzten ardurak, baina egunak igaro ahala, ez dute haien papera bete, eta ikastaldean arazoren bat azaldu denean, irakaslearengana jo izan dute, esku-hartzean parte hartu baino lehen egiten zuten legez.

#### **4.2. Ondorioak**

Proposamen didaktikoa praktikara eraman ostean lorturiko emaitzen aurrean, hainbat ondorio atera daitezke, etorkizunerako baliagarriak izango direnak.

Lanaren helburu nagusia ikasleen balio eta jarreretan aldaketa edo hobekuntza jakina eragitea izan da eta emaitzetan aldaketa hori islatzen da. Hortaz, proposatutako esku-hartzea horretarako baliagarria izan dela ondorioztatu daiteke. Halaber, hainbat arrazoi direla medio, ezin da ziurtatu lortutako aldaketak behin betikoak izango direnik.

Balioen eta jarreraren kasua den bezala, ikasleen pertsonalitatean eragiten dituzten faktoreetan aldaketak eragiteko denbora luzea behar da. Lanketak jarraitasun bat izan behar du eta proposaturiko esku-hartze hau oso laburra izan da aldaketa esanguratsuak lortzeko.

Gainera, interbentzioa burutzeko lagina txikia izan da. 27 umek baino ez dute parte hartu eta eskola berekoak eta antzeko testuinguruetan hezitakoak izanik, zaila da lortutako ondorioak orokortzea.



Aldaketaren bat proposatzekotan, rol-jokoa nagusiagoak diren umeekin egitea proposatuko nuke. Izan ere, gainerako jardueretan edukiak barneratu dituztela erakutsi duten arren, lehenengo mailako umeak gazteegiak dira rol-jokoan hartu beharreko ardurak betetzeko.

Emaitzei erreparatuz, pre-testean txarto erantzun zutenek amaierako testean ondo erantzun dutela behatzen da, eta ondorioz, aldaketa eman dela baieztatu daiteke. Halere, aintzat hartu behar da ikasleek sarritan galdetzaileak entzun nahi duena erantzuten dutela, eta ez, ordea, benetan haiek sentitzen dutena. Beraz, hasierako zein amaierako erantzun ugari horren menpe egon daitezke, ikasleen benetako pentsamenduak eta sentimenduak ezkutatu.

Laburbilduz, esparru teorikoan azaldu den moduan, balioak eta jarrerak garrantzia handikoak dira bizitzako testuinguru guztietan eta hezkuntza erakundeak erantzukizun handia dauka arlo horretan. Beraz, funtsezkoa da gai horri arreta handiagoa eskaintzea ikasleen hezkuntza prozesua aurrera eramateko egunerokotasunean eta luzaroan hauek presente izanik. Izan ere, balien eta jarreraren gabeziak ondorio larriak izan ditzake pertsonen garapen sozio-afektiboan.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Álvarez, J. (2001). *Análisis de un modelo de educación integral*. (Tesis doctoral). Universidad de Granada, facultad de ciencias de la educación, Granada.
- Caballero, M.J. (2010). Convivencia escolar. Un estudio sobre buenas prácticas. *Revista paz y conflictos*, 3, 154-169.
- Carreras, L., Eijo, P., Estany, A., Gómez, M<sup>a</sup> T., Guich, R., Mir, V., Ojeda, F., Planas T. & Serrats, M<sup>a</sup> G. (1995). *Cómo educar en valores: materiales, textos, recursos y técnicas*. Madrid: Narcea.
- Del Prette, Z., Domeniconi, C., Amaro, L., Benitez, P., Laurenti, A. & Del Prette, A. (2013). La tolerancia y el respeto a las diferencias: efectos de una actividad educativa en la escuela. *Apuntes de psicología*, 31, 59-66.
- Elzo, J., Megías, I., Navarro, J., Rodríguez, E. & Romani, O. (2000). *Los valores de la sociedad española y su relación con las drogas*. Barcelona: Fundación "la Caixa".

- Espinosa, C.M<sup>a</sup>. (2008). Educar en valores. *Revista digital transversalidad educativa*, 1, 28-36.
- Eusko Jaurlaritz (2010). 175/2007 Dekretua. Curriculum Vitoria- Gasteiz. Hezkuntza Saila.
- Grass, P. (1997). *La educación de valores y virtudes en la escuela*. México: Trillas.
- Juárez, J. (2007). Hacia una educación posible: valores, virtudes y actitudes en la escuela. *Revista de ciencias de la Educación*, XXVIII.
- Kamii, C. (1970). La Autonomía como Finalidad de la Educación. Unicef.
- Martínez, M., Esteban, F. & Buxarrias, M.R. (2011). Escuela, profesorado y valores. *Revista de Educación, nº extraordinario, Educación valores y democracia*, 95-113.
- Medrano, C. (1999a). ¿Es posible enseñar y aprender valores en la escuela?. *Revista de psicodidáctica*, 7, 67-81.
- Miras, M. (1990). Afectos, emociones, atribuciones y expectativas: el sentido del aprendizaje escolar. *Desarrollo psicológico y educación-en* (309-330). Madrid: Alianza Editorial
- Parra, J.M. (2003). La Educación en valores y su práctica en el aula. *Tendencias pedagógicas*, 8, 69-88.
- Real Academia Española. (2015). *Diccionario de la lengua española* (22. ed.). 2015-04-15ean hartuta, hemendik: <http://www.rae.es/recursos/diccionarios/drae>
- Rugarcía, A. (1999b). *Los valores y las valoraciones en la educación*. México: Trillas.